

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1132

25/2025 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Osakidetzarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialekin sinatutako hitzarmena, farmazia-bulegoetatik bultzatzeko asma edo BGBKraiko inhalagailuekiko atxikidura hobea eta inhalagailu horien erabilera egokia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Osakidetzarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialekin sinatutako hitzarmena, farmazia-bulegoetatik bultzatzeko asma edo BGBKraiko inhalagailuekiko atxikidura hobea eta inhalagailu horien erabilera egokia. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2025eko martxoaren 11, asteartea

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 28KO 25/2025 EBAZPENARENA**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALEN ARTEKOA, ASMA EDO BIRIKETAKO GAIXOTASUN BUXATZAILE KRONIKOAN INHALAGAILUEKIKO ATXIKIMENDUA HOBETZEKO ETA HORIEN ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO FARMAZIA-BULEGOEN BITARTEZ****HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren izenean eta hura ordezkatzuz, haren Administrazio Kontseiluko presidente gisa, Lehendakariaren irailaren 7ko 27/2000 Dekretuaren bidez Osasun Sailburu izendatzekoa (EHAA, 177. zk., 2020ko irailaren 8koa), eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62. Artikuluan, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 2. Artikuluan eta Euskadiko Antolamendu sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 22. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Miguel Ángel Gastelurrutia Garralda jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluko presidentea eta Gipuzkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko presidentea, Milagros López de Ocariz López de Muniain andrea, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko presidentea, eta Juan Uriarte García-Borreguero jauna, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko presidentea; horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia-bulegoen titularren izenean eta ordezkartzan jarduten dute, korporazio horien estatutuetan xedatutakoaren arabera.

HAU ADIERAZTEN DUTE:

Sistema sanitarioaren erronka nagusietako bat patologia kronikoak ahalik eta ondoen kontrolatzea eta kontrolpean izatea da; horretarako, funtsezkoa da diagnostiko goiztiarra, gaixotasunaren jarraipen egokia egitea, eta atxikimendu terapeutiko ona lortzea. Atxikimendurik eza osasun publikoko arazo bihurtu da; izan ere, herrialde industrializatueta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen erdiek ez dute atxikimendurik.

Asma eta BGBK dira arnas gaixotasun kroniko nagusienetako bi. EAEn, asmaren prebalentzia % 9,7koa da, eta BGBKrena % 2,41koa. Bi gaixotasunak inhalagailuen bidez tratatzen dira batez ere, eta oso garrantzitsua da inhalazio-teknika ondo ezagutzea; izan ere, behar bezala egiten ez bada, medikazioa ez da birikara iritsiko eta ez du eraginik izango. Kalkuluen arabera, gaixoen erdiek ez dute preskribatutako tratamendua behar bezala betetzen, eta horrek zerikusia du bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena murriztearekin eta gastu sanitario handiagoarekin. Heziketa sanitario onak atxikimendua hobetu eta inhalagailuak erabiltzeko teknika hobetzen ditu, eta, ondorioz, osasun-eremua hobekien lortzen dira.

Frogatu da hainbat asistentzia-eremutako profesionalen esku-hartze sanitarioak eraginkorrak izan direla paziente kronikoen osasun-eremua hobetzeko. Izan ere, pazientearen arreta profesional sanitario guztien ardura da, eta farmazia-bulegoko farmazialariek arreta integrala ematen lagun dezakete medikazioa ematearen arloan; horretarako, aholkuak eta heziketa eman behar dituzte medikazioa hartzeko, eta pazienteen jarraipenean lagundu behar dute. Eginkizun orokor horrekin batera, farmaziaren bitartez ekintza espezifikoak egin daitezke pazienteen atxikimendu terapeutikoa hobetzeko, esku-hartze medikoa behar duten egoerak antzemateko, eta, kasu horretan, pazienteen osasun-zentzura bideratzeko.

Horren harira, ohikoa da asma edo BGBK duen pazienteak bere farmazia-bulegoko farmazialaria maiz bisitatzea, medikazioa jasotzeko. Une hori abagune ona da gaixotasunaren hainbat alderdiri buruzko heziketa sanitarioa emateko, atxikimendua ebaluatzeko eta, beharrezkoa denean, osasun-zentrorra bideratzeko. Beraz, farmazia leku egokia da pazienteen atxikimendu terapeutikoa hobetzeko eta pazienteei arreta integrala ematen laguntzeko.

Azaldutako guztiagatik, alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, farmazia-bulegoen bitartez asma edo BGBK gaixotasunetarako inhalagailuekiko atxikimendua eta haien erabilera egokia hobetzeko, honako xedapen hauen arabera:

XEDAPENAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialek asma eta BGBK duten eta inhalazio bidezko sendagaiak erabiltzen dituzten pazienteen tratamenduarekiko atxikimendua hobetzeko eta inhalagailuen erabilera optimizatzeko baldintzak ezartzea, Osasun Sailarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, farmazia-bulegoen bitartez asma edo BGBK gaixotasunetarako inhalagailuekiko atxikimendua hobetzeko eta erabilera egokia sustatzeko.

Bigarrena.– Alderdien funtzioak eta betebeharrak.

Sinatzen duten alderdiek hitzematen dute adostutako zehaztapen teknikoak beteko dituztela. Alderdi biek adostuko dituzte baldintza horiek, eta hitzarmen honen eranskinean jasoko dira.

Osasun Sailak programa hori zabaltzeko konpromisoa hartzen du.

Farmazialarien elkargoek konpromisoa hartzen dute programa horren berri emateko eta farmazia-bulegoen parte-hartzea sustatzeko, bai eta programan parte hartuko dutenak hautatu eta egiaztatzeko ere. Horretarako, farmaziek prestakuntza hori egin duen farmazialari bat izan beharko dute gutxienez; farmazialari hori farmazialari gaituztat hartuko da.

Hirugarrena.– Finantzaketa.

Osasun Sailak honako hauek ordainduko dizkie programan parte hartzen duten farmazia-bulegoei, farmazialarien elkargo ofizialen bitartez:

– 10 euro hasierako elkarrizketa bakoitzeko, aurreikusitako galdetegiak behar bezala bete baldin badira.

– 10 euro azken bisitagatik, galdetegiak bete eta aurreikusitako esku-hartzeak egin badira; horrez gain, emaitzaren arabera:

- IAT testa (10 euro bi aukera hauetako bat gertatzen bada):
 - Hasierako puntuazioa 45 puntutik beherakoa zen, eta azken-puntuazioa gutxienez 5 puntu hobetu da.
 - Hasierako puntuazioa 45 puntutik gorakoa zen, eta azken-puntuazioa gutxienez 2 puntu hobetu da.
- Asma kontrolatzea (10 euro bi aukera hauetako bat gertatzen bada):
 - Hasierako puntuazioa 20tik beherakoa zen eta 20tik gorakoa izatera iritsi da.
 - Hasierako puntuazioa 20tik 24ra bitartekoa zen eta 25ekoa izatera iritsi da.

– BGBKren bilakaera: 10 euro, CAT testaren arabera inpaktu-maila hobetzen bada.

Programak ezartzen duenez, gutxienez, bitartean, beste bisita bat egongo da, gailuarekiko atxikimendu-testa eta erabileraren azterketa egiteko; horrek ez du ordainsari espezifikorik ekarriko.

Farmazialarien elkargo ofizialek konpromisoa hartzen dute, informazio-sistema espezifiko baten bidez, fakturak (hitzarmen honekin batera doan ereduaren arabera beteta) hileroko egiteko eta Osasun Sailari telematikoki bidaltzeko.

Laugarrena.– Egikaritzea.

Parte hartzen duen farmazia-bulegoak hitzarmenaren eranskinean adierazitako jarduerak egingo ditu eta Osasun Sailari jakinaraziko dizkio.

Bosgarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko indarraldia izango du. Aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena beste lau urtetarako luzatzea, edo hitzarmena azkentzea.

Seigarrena.– Jarraipen batzordea.

Funtzionamendua baloratzeko eta hitzarmenari buruz agertzen diren gaiak ebazteko, jarraipen-batzorde bat eratuko da. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialeko hiru kidek eta Osasun Saileko beste hiru kidek osatuko dute batzordea, eta azken hiru kide horietako bat izango da presidentea.

Hitzarmenaren edukia aldatu aurretik, alderdi sinatzaileek aho batez onartu beharko dute.

Zazpigarrena.– Ez-betetzea.

Alderdietako bakoitzak bere egindako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, hitzarmena amaitu egingo da.

Eta orain arte azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdi batekoek nahiz beste-koek hitzarmen honen jatorrizko bost ale sinatu dituzte, goian aipaturiko tokian eta egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 10a.

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluko presidentea,
Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko presidentea,
MIGUEL ÁNGEL GASTELURRUTIA GARRALDA.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko presidentea,
MILAGROS LÓPEZ DE OCARIZ LÓPEZ DE MUNIAIN.

Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko presidentea,
JUAN URIARTE GARCÍA-BORREGUERO.

ERANSKINA

FARMAZIA-BULEGOEN BITARTEZ ASMA-RAKO EDO BGBK-RAKO INHALAGAILUEKIKO ATXIKIMENDUA HOBETZEKO ETA HORIEN ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO PROGRAMA

1.– Sarrera.

Sistema sanitarioaren erronka nagusietako bat patologia kronikoak ahalik eta ondoen kontrolatzea eta kontrolpean izatea da; horretarako, funtsezkoa da diagnostiko goiztiarra, gaixotasunaren jarraipen egokia egitea, eta atxikimendu terapeutiko ona lortzea. Atxikimendurik eza osasun publikoko arazo bihurtu da; izan ere, herrialde industrializatueta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen erdiek ez dute atxikimendurik ^{1, 2}.

Asma eta BGBK dira arnas gaixotasun kroniko nagusienetako bi. EAEn, asmaren prebalentzia % 9,7koa da, eta BGBKrena % 2,41ekoa³. Bi gaixotasunak inhalagailuen bidez tratatzen dira batez ere, eta oso garrantzitsua da inhalazio-teknika ondo ezagutzea; izan ere, behar bezala egiten ez bada, medikazioa ez da birikara iritsiko eta ez du eraginik izango. Kalkuluen arabera, gaixoen erdiek ez dute preskribatutako tratamendua behar bezala betetzen, eta horrek zerikusia du bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena murriztearekin eta gastu sanitario handiagoarekin⁴. Heziketa sanitario onak atxikimendua hobetu eta inhalagailuak erabiltzeko teknika hobetzen ditu, eta, ondorioz, osasun-emaiza hobek lortzen dira.

Frogatu da hainbat asistentzia-eremutako profesionalen esku-hartze sanitarioak eraginkorrak izan direla paziente kronikoen osasun-emaizak hobetzeko. Izan ere, pazientearen arreta profesional sanitario guztien ardura da, eta farmazia-bulegoko farmazialariek arreta integrala ematen lagun dezakete medikazioa ematearen arloan; horretarako, aholkuak eta heziketa eman behar dituzte medikazioa hartzeko, eta pazienteen jarraipenean lagundu behar dute. Eginkizun orokor horrekin batera, farmazia-bulegoaren bitartez ekintza espezifikokoak egin daitezke pazienteen atxikimendu terapeutikoa hobetzeko, esku-hartze medikoa behar duten egoerak antzemateko, eta, kasu horretan, paziente osasun-zentrorara bideratzeko.

Horren harira, ohikoa da asma edo BGBK duen pazienteak bere farmazia-bulegoko farmazialaria maiz bisitatzea, medikazioa jasotzeko. Une hori abagune ona da gaixotasunaren hainbat alderdiri buruzko heziketa sanitarioa emateko, atxikimendua ebaluatzeko eta, beharrezkoa denean, osasun-zentrorara bideratzeko. Beraz, farmazia leku egokia da pazienteen atxikimendu terapeutikoa hobetzeko eta pazienteei arreta integrala ematen laguntzeko.

2.– Helburuak.

Helburu nagusiak:

– Asma eta BGBK duten eta inhalazio bidezko sendagaiak erabiltzen dituzten pazienteen tratamenduarekiko atxikimendua hobetzea.

– Erabiltzaile talde honek inhalagailuen erabilera optimizatzea.

Bigarren mailako helburuak:

– Atxikimendu-falta duten pazienteak detektatzea eta heziketa sanitarioa ematea, hobetzeko.

– Inhalagailua erabiltzeko teknika okerra duten pazienteak detektatzea eta erabilera zuzentzeko heziketa sanitarioa ematea.

– Asmaren edo BGBKren kontrol handirik ez duten pazienteak detektatzea eta osasun-zentrorara bideratzea.

– Farmazia-bulegoko profesional sanitarioen esku-hartzea sustatzea, pazienteen atxikimendua eta osasun-eraketak hobetzeko.

3.– Parte hartzen duten profesional sanitarioak.

Profesional sanitario hauek parte hartuko dute:

- Farmazia-bulegoko farmazialariak.
- Osakidetzaren sareko Lehen Mailako Arretako medikuak (LMM).
- Osakidetzaren sareko Lehen Mailako Arretako farmazialariak (LMF).
- Osakidetzaren sareko Lehen Mailako Arretako erizainak.

4.– Partaidetza-eremua:

– Programa Osakidetzaren sareko lehen mailako arretako osasun-zentro guztietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako farmazietan egin ahal izango da.

5.– Xede-populazioa:

Bi baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak parte hartuko dute:

- Inhalagailua kronikoki preskribatua duen pertsona.
- Asma edo BGBK duten 18 urte edo gehiagoko pertsonak.

6.– Farmacias participantes en los programas.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzak berariaz egiaztatutako farmaziek bakarrik parte hartu ahal izango dute inhalagailuen atxikidura eta erabilera hobetzeko programan.

Akreditazioa lortzeko, farmaziaren titularrak programari atxikitzeko agiria sinatu behar du (12. eranskina), eta farmaziak, gutxienez, farmazialari bat izan behar du, bere «Farmazialarien Elkargo Ofizialak» egiaztatua, hitzarmen hau gauzatzeko diseinatutako Prestakuntza Teoriko-praktikoko Plana behar bezala egin duena. Lantaldean, Farmaziako Zuzendaritzak, ASMA eta/edo BGBKn adituak diren Osakidetzako profesional espezialistek eta «Farmazialarien Elkargoak» batera parte hartuko dute.

Farmazialariak zerbitzua emateko gaitasun nahikoak dituela frogatu ondoren, «farmazialarien elkargo ofizialek» Osasun Sailari bidaliko diote akreditazioa lortu dutenen zerrenda.

7.– Farmazia-bulegoetako jarduketa:

Farmazian bete beharreko urratsak farmazian jarduteko prozesu-diagraman jasotzen dira (1. eranskina).

7.1.– Pazienteak erakartzea.

Inhalagailua preskribatuta duten eta asma edo BGBK dutela badakiten 18 urte edo gehiagoko paziente guztiei eskainiko die zerbitzua farmazia-bulegoak. Esku-hartzea onartzen badute, farmaziak baimen informatua emango dio pazienteari, eta sinatu ondoren, pazientea programan sartuko da.

Farmaziak lehendabiziko elkarrizketarako deituko du pazientea, kontuan hartuta farmazialariak denbora behar duela galdetegiak egiteko eta emaitza aztertzeko.

7.2.– Lehendabiziko elkarrizketa.

Lehendabiziko bisitan jarduera hauek egingo dira:

- Farmazia-arretarako gunean pazientearekin elkarrizketa egingo da.
- Inhalagailuekiko atxikimendua duen antzemango da: IAT testa (ikus 2. eranskina).
- Pazienteak inhalagailua behar bezala erabiltzen duen egiaztatuko da: «Inhalagailuen kontrol-zerrenda» (ikus 3. eranskina).
- Txarto kontrolatutako asma-kasuak antzemango dira: ACT testa (ikus 4. eranskina).
- Txarto kontrolatutako BGBKren kasuak antzemango dira, azken 3 hilabeteetan gaixotasunaren azterketarik egin ez zaien pazienteengan eta disnea larriagotu zaien pazienteengan: Disnea-eskala eta CAT testa (ikus 5. eta 6. eranskinak).
- Paziente Bizia «Nire asma zaintzen» edo «Nire BGBK zaintzen» ikastaroa egitea gomendatu behar zaie paziente guztiei.
- Osasun-zentrora bideratzea, behar denean.

Lehenengo elkarrizketan erabilitako galdetegiak:

ASMA duten pazienteak:

- IAT: Inhalagailuekiko atxikimendu-testa (2. eranskina).
- «Inhalagailuen kontrol-zerrenda» (3. eranskina).
- ACT: Asthma Control Test: asmaren kontrola ebaluatzeko (4. eranskina).

BGBK duten pazienteak:

- Paziente guztiei:
 - IAT: Inhalagailuekiko atxikimendu-testa (2. eranskina).
 - «Inhalagailuen kontrol-zerrenda» (3. eranskina).
- Azken 3 hilabeteetan lehen mailako arretan edo pneumologian gaixotasunaren azterketa egin ez zaien pazienteei eta/edo disnea larriagotu zaien pazienteei:
 - Disnea-eskala (Medical Research Council-en disnea-eskala aldatua) (5. eranskina).
 - CAT testa: BGBKren eragina ebaluatzeko galdetegia (6. eranskina).

7.3.– Emaitzen interpretazioa eta farmazia-bulegoaren esku-hartzea.

7.3.1.– IAT testa: Inhalagailuekiko atxikimendu-testa (2. eranskina).

12 galderako galdetegi bat da, eta honako informazio hau jasotzeko aukera ematen du modu erraz eta fidagarrian:

- Inhalagailuarekiko atxikimendu txikia duen pazientea identifikatzea.
- Atxikimendu-maila ezartzea: ona, ertaina edo txarra.

- Ez betetzeko arrazoia zein den jakitea: iragarrezina, nahita ez betetzea edo nahi gabe ez betetzea.

Esku-hartzea:

Tratamendua betetzen ez duen paziente bat detektatuz gero, arrazoia aztertuko da eta heziketa sanitarioa emango zaio farmazia-bulegoan, 2. eranskinaren arabera. Pazienteari hitzordua emango zaio bi azterketa egiteko, 2 eta 4 hilabeteren buruan.

Beste arrazoi batzuegatik pazienteak osasun-zentrora bideratu behar denean (1., 2., 3. eta 4. egoerak), IAT testaren emaitza OZrako bideratze-orrian idatziko da.

7.3.2.– ACT testa: Asthma Control Test: asmaren kontrola ebaluatzeko (4. eranskina).

5 galderako galdera sorta labur bat da, pazienteak bere kabuz erantzutetako, eta azken 4 asteetan pazientearen asma ebaluatzeko balio du.

Interpretazioa:

Asmaren kontrol-maila	Puntuazioa
Asma erabat kontrolatua	25
Asma ondo kontrolatua	20-24
Asma ez kontrolatua	< 20

Esku-hartzea:

– Osasun-zentrora bideratu egoera hauetan:

- 1. egoera: ACT < 20 puntu + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.
- 2. egoera: Erreskateko medikazioa hartzen du astean bitan baino gehiagotan (kontrolpeko kirolariak izan ezik) + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.
- 3. egoera: Eguneko sintomak astean bitan baino gehiagotan + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.

7.3.3.– Disnea-eskala (mMRC) (5. eranskina).

British Medical Research Council-en (mMRC) eskala aldatuak disnearen eta desgaitasunaren ebaluazioa ematen du, eta larriagotzearen adierazle ere bada.

Azken 3 hilabeteetan lehen mailako arretako edo pneumologiako kontsultan gaixotasunaren azterketa egin ez zaien BGBK duten pazienteei eta/edo disnea larriagotu zaien pazienteei egiten zaie.

Esku-hartzea:

Osasun-zentrora bideratuko dira disnea larriagotu zaien pazienteak (4. egoera). mMRC testaren emaitza OZrako bideratze-orrian idatziko da, baita intereseko beste datu batzuk ere.

7.3.4.– CAT testa: BGBK ebaluatzeako testa (6. eranskina).

8 galderako galdetegi bat da, BGBK-k pazientearen ongizatean eta bizi-kalitatean duen eragina neurtzeko.

Azken 3 hilabeteetan lehen mailako arretako edo pneumologiako kontsultan gaixotasunaren azterketa egin ez zaien BGBK duten pazienteei eta/edo disnea larriagotu zaien pazienteei egiten zaie.

Esku-hartzea:

Osasun-zentrora bideratuko dira disnea larriagotu zaien pazienteak (4. egoera). CAT emaitza OZrako bideratze-orrrian idatziko da, baita intereseko beste datu batzuk ere.

7.3.5.– «Inhalagailuen kontrol-zerrenda» (3. eranskina).

Tresna erabilgarria eta praktikoa da inhalatzeko teknikaren urratsei buruzko informazioa sistematizatzeko heziketa sanitarioan.

Esku-hartzea:

– Pazientearekin batera, erabiltzen duen inhalagailu bakoitzaren urratsak egiaztatzea.

– Irakastea eta egiten dituen akatsak zuzentzea. Pazienteari hitzordua emango zaio bi azterketa egiteko, 1 eta 4 hilabeteren buruan.

– Antzematea akats kritikoak egiten dituen eta inhalagailua aldatu behar duen, pazientearen ezaugarri pertsonalengatik gaindiezinak direlako.

– Inhalagailua aldatu behar bada akats kritikoak egiten dituelako, osasun-zentrora bideratuko da (5. egoera).

Akats kritikoa da inhalazio-teknikan huts egitea, eta zuzendu ezin izatea farmaziako esku-hartze hezitzailearen bidez.

Akats kritikoen adibideak:

– Inhalagailua erabili aurreko arnasbotatzea egiteko gai ez izatea.

– Arnas hartze sakon eta indartsua egiteko gai ez izatea, edo hori zuzen egiteko arnas hartzeko behar besteko gaitasunik ez izatea.

– Kartutxo presurizatuetan, ez izatea gai arnasa hartu bitartean gailua sakatzeko.

7.4.– Osasun-zentrora bideratzeko irizpideak:

Farmaziak osasun-zentrora bideratzeko inprimaki bat beteko du (2. eranskina) eta LMko farmazialariari bidaliko dio mezu elektronikoen bidez. OZra bideratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

ASMA duten pazienteak:

– 1. egoera: ACT < 20 puntu + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.

– 2. egoera: Erreskateko medikazioa hartzen du astean bitan baino gehiagotan (kontrolpeko kirolariak izan ezik) + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.

– 3. egoera: Eguneko sintomak astean bitan baino gehiagotan + IAT atxikia + inhalagailuen

azterketako emaitza akatsik gabe.

– 5. egoera: Inhalagailua aldatu behar dela pentsatzeko moduko akats kritikoak egotea inhalagailuen erabileraren kontrol-zerrendan.

BGBK duten pazienteak:

– 4. egoera: Disnea larriagotu zaien BGBK duten pazienteak. Kasu horretan, farmaziak CAT testa eta disnea-eskala egingo dizkie.

– 5. egoera: Inhalagailua aldatu behar dela pentsatzeko moduko akats kritikoak egotea inhalagailuen erabileraren kontrol-zerrendan.

8.– Osasun zentroko jarduketa.

8.1.– LMko farmazialarien jarduketa-plana:

LMko farmazialariak farmaziak bidaltzen dituen bideratze-inprimakiak jasoko ditu eta erizainekin edo LMko medikuekin kudeatuko ditu.

1., 2., 3. eta 4. Egoerak.

1.– Inprimakiak jasotzea eta egiaztatzea:

Egiaztatzea asma duen pazienteak kortikoide inhalatu bidezko tratamendua duela preskribatuta.

2.– LMko medikuari jakinaraztea: LMko farmazialariak azterketa egin behar zaien pazienteen zerrenda bidaliko du Excel formatuan. (kortikoide inhalatu bidezko tratamendua preskribatuta ez dutenak)

3.– Erizaintzako kontsultara bideratzea: Paziente guztiak, egoera klinikoa eta hezkuntza-beharrak baloratzeko.

5. egoera (akats kritikoak inhalagailuaren erabileran): pazienteak gaur egun txarto erabiltzen duen inhalagailu bat duela egiaztatuko da, eta medikuaren kontsultara bideratuko da.

1.– Inprimakiak jasotzea eta egiaztatzea.

Baieztatu pazienteak gaur egun txarto erabiltzen duen inhalagailu bat duela, eta

2.– LMko medikuari jakinaraztea: LMko farmazialariak pazienteen zerrenda bidaliko dio (Excel formatuan), baita pazientearentzat egokia den inhalagailua preskribatzeko proposamena ere.

8.2.– Erizainen jarduketa-plana:

Erizaintza: LMko farmazialariak bidalitako bideratze-inprimakia bistaratuko du, eta lehen kontsulta egingo du pazientearekin telefono bidez:

1., 2., 3. eta 4. egoerak (gaixotasunaren kontrol txarra): honako ekintza hauek egingo ditu:

1.– Aurrekariak eta baldintzatzaileak berrikustea.

2.– Asmaren/BGBKren diagnostikoa historia kliniko elektronikoan jasota dagoela eta ondo kodetuta dagoela egiaztatzea.

3.– Pazientearekin telefonoz harremanetan jartzea, egoera klinikoa eta hezkuntza-beharrak baloratzeko. Pazienteak dituen zeinuak edo sintomak aztertuko dira. Inprimakian agertzen diren emaitzak eta hezkuntza-beharrak baloratuko dira: Paziente Bizia ikastaroa gomendatzea.

4.– Medikuen kontsultara bideratzea, baldin eta:

4.1.– Asma/BGBK diagnostikoa ez badago historian edo gaizki kodetuta badago.

4.2.– Pazienteak sintoma hauek baditu:

- Sintomatologia kliniko akutua.
- Deskonpentsazio-zeinu edo -sintoma argiak.

8.3.– Familiako medikuen jarduketa-plana:

LMko medikuak honako ekintza hauek egingo ditu, erizaintzako kontsultatik bideratzeko arrazoiaren arabera:

1., 2., 3. eta 4. egoerak (gaixotasunaren kontrol txarra): LMko medikuen ardura izango da:

– Asmaren/BGBKren kontrol-maila ebaluatzea eta praktika klinikoko giden gomendioen araberrako egokitzapen terapeutikoa egitea.

– Pazientearen sintomatologia akutua artatzea.

– BGBKren diagnostikoa baieztatzea eta kodetzea, diagnostikoa ez badago jasota edo gaizki kodetuta badago historia klinikoa.

5. egoera (errore kritikoak inhalagailuaren erabileran): Inhalagailua egokitzea.

Hasiera batean, bai erizaintzan, bai kontsulta medikoan, gomendagarria da pazientearekin telematikoki lehen harremana izatea, hiru helburu lortzeko: pazientearen egoera epidemiologikoa argitzea, erabakimen handiko ikuspegia lortzea ondoren aurrez aurreko bisita egin behar izanez gero, eta pazientearen beharrak zehatzago betetzea.

9.– Emaitzen jarraipena eta ebaluazioa.

Programaren helburuen betetze-maila baloratzeko, farmaziak hilero erregistratuko ditu:

Farmaziek egindako esku-hartzeak:

- Esku-hartze kopurua, guztira (=IAT test kop.)
- ASMAko esku-hartze kopurua.
- BGBK-ko esku-hartze kopurua.

Atxikimendua:

ASMA:

- IAT testarekin atxikimendua ebaluatu zaien pazienteen kopurua.
- IAT testaren emaitza lehen bisitan.
- IAT testaren emaitza 4 hilabetera egindako bigarren bisitan.

BGBK:

- IAT testarekin atxikimendua ebaluatu zaien pazienteen kopurua.
- IAT testaren emaitza lehen bisitan.
- IAT testaren emaitza 4 hilabetera egindako bigarren bisitan.

OZra bideratzeak:

OZra bideratutako kasuen kopurua egoera bakoitzean:


- 1. egoera Asma. Asma ez kontrolatua, honako emaitza hauen arabera: ACT testa < 20 puntu + IAT atxikia + inhalagailuen azterketako emaitza akatsik gabe.
- 2. egoera Asma. Erreskateko inhalagailua hartzen du astean bitan baino gehiagotan. (kontrolpeko kirolariak izan ezik).
- 3. egoera Asma. Eguneko sintomak dauzka astean bitan baino gehiagotan.
- 4. egoera BGBK. Disnea larriagotu zaion pazientea.
- 5. egoera Akats kritikoak inhalagailuen azterketan.

Paziente Bizia:

- Programaren ondorioz Osakidetzako Paziente Bizia «Nire asma zaintzen» ikastaroan izena eman duten pazienteen kopurua.
- Programaren ondorioz Osakidetzako Paziente Bizia «Nire BGBK zaintzen» ikastaroan izena eman duten pazienteen kopurua.

1. ERANSKINA

FARMAZIA-BULEGOAN JARDUTEKO PROZESU-DIAGRAMA



^aACT. Asthma Control Test
^bCAT. COPD Assessment Test . (COPD=BGBK ingelesez)
^cmMRC eskala. Disnea-eskala aldatua (British Medical Research Council)
^dIAT. Inhalagailuekiko Atxikimendu Testa

2. ERANSKINA

INHALAGAILUEKIKO ATXIKIMENDU TESTA (IAT)

Inhalagailuekiko Atxikimendu Testa (IAT) galdetegi erraz eta fidagarria da, eta honako informazio hau jasotzeko aukera ematen du:

- Inhalagailuarekiko atxikimendu txikia duen pazientea identifikatzea
- Atxikimendu-maila ezartzea: ona, ertaina edo txarra
- Ez betetzeko arrazoia zein den jakitea: iragarrezina, nahita ez betetzea edo nahi gabe ez betetzea

Tratamendua betetzen ez duen paziente bat detektatuz gero, arrazoia aztertuko da eta heziketa sanitarioa emango zaio farmazia-bulegoan. Azterketa egiteko hitzordua jarriko zaio, 4 hilabeteren buruan.

Testaren emaitza OZrako bideratze-orrian idatziko da, beharrezkoa denean (1., 2. eta 3. egoerak).

Online bertsioa: <https://www.taitest.com/>

2025eko martxoaren 11, asteartea

**Test de Adhesión a los Inhaladores**

1. En los últimos 7 días ¿cuántas veces olvidó tomar sus inhaladores habituales?

1. Todas 2. Más de la mitad 3. Aprox. la mitad 4. Menos de la mitad 5. Ninguna

2. Se olvida de tomar los inhaladores:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

3. Cuando se encuentra bien de su enfermedad, deja de tomar sus inhaladores:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

4. Cuando está de vacaciones o de fin de semana, deja de tomar sus inhaladores:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

5. Cuando está nervioso/a o triste, deja de tomar sus inhaladores:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

6. Deja de tomar sus inhaladores por miedo a posibles efectos secundarios:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

7. Deja de tomar sus inhaladores por considerar que son de poca ayuda para tratar su enfermedad:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

8. Toma menos inhalaciones de las que su médico le prescribió:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

9. Deja de tomar sus inhaladores porque considera que interfieren con su vida cotidiana o laboral:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

10. Deja de tomar sus inhaladores porque tiene dificultad para pagarlos:

1. Siempre 2. Casi siempre 3. A veces 4. Casi nunca 5. Nunca

Las dos siguientes preguntas las deberá responder el profesional sanitario responsable del paciente según los datos que figuran en su historial clínico (pregunta 11) y tras comprobar su técnica de inhalación (pregunta 12)

11. ¿Conoce o recuerda el paciente la pauta (dosis y frecuencia) que se le prescribió?

1. No 2. Sí

12. La técnica de inhalación del dispositivo* del paciente, es**:

1. Con errores críticos 2. Sin errores críticos o correcta

INTERPRETAZIOA.

Rangos de puntuación e interpretación

A continuación se detallan los rangos de puntuación para el nivel de adhesión y el tipo de incumplimiento que permite identificar el test TAI.

TAI 10 Ítems		Nivel de adhesión	
PUNTUACIÓN		INTERPRETACIÓN	
=50 puntos	>	Buena adhesión	
Entre 46 y 49 puntos	>	Adhesión intermedia	
≤ 45 puntos	>	Mala adhesión	

TAI 12 Ítems		Tipo de incumplimiento*	
PUNTUACIÓN		INTERPRETACIÓN	
Ítems del 1 al 5 < 25	>	Incumplimiento errático	
Ítems del 5 al 10 < 25	>	Incumplimiento deliberado	
Ítems del 11 al 12 < 4	>	Incumplimiento inconsciente	

**Un mismo paciente puede presentar más de un tipo o patrón de incumplimiento, y un paciente con 50 puntos en el TAI de 10 ítems puede ser luego incumplidor inconsciente en el TAI de 12 ítems.*

Los niveles de adhesión que identifican el TAI de 10 ítems son los siguientes:

- **Buena adhesión:** paciente cumplidor.
- **Adhesión intermedia:** paciente incumplidor moderado.
- **Mala adhesión:** paciente incumplidor.

FARMAZIA-BULEGOAREN ESKU-HARTZEA

Farmaziak esku hartu beharko du atxikimendua ertaina edo txarra denean. Atxikimenduari buruzko heziketa sanitarioa emango du, jarraibide hauen arabera, eta IAT testa errepikatuzeko hitzordua jarriko dio 2 eta 4 hilabeteren buruan.

1.– Atxikimendurik eza, iragarrezina (1-5 galderak):

Oztopo fisikoak edo kognitiboak	Medikuarekin harremanetan jartzea, medikazioa egokitzeko aukera badago.
	Familiarekin harremanetan jartzea, medikazioa hartzen lagundu behar badiote eta laguntza hori eman ahal badiote.
	Gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzea, esku hartu behar izanez gero.
Ahaztu egiten zaio inhalagailuak hartzea	Hartzeko orduak gogorarazteko alarmak ezartzea (Osakidetzaren <i>Nire tratamendua</i> aplikazioa).
	Medikazioa hartzea eguneroko jarduera bati lotzea.
	Farmaziak gogoraraztea beste ontzi bat jaso behar duenean.
	Kutxaren etiketak manipulatzeko: piktogramak, posologia apuntatzea, etab.
Ondo sentitzen denean hartzeari uzten dio	Gaixotasuna ondo kontrolatzearen garrantzia azaltzea, eta kontrolik ezak epe luzera dituen ondorioak ere bai (ahozko eta idatzizko informazioa→, gaixotasun bakoitzari buruzko triptiko bat diseinatzea).
	Farmaziak gogoraraztea beste ontzi bat jaso behar duenean.
Hartzeari uzten dio oporretan edo asteburuetan	Hartzeko orduak gogorarazteko alarmak ezartzea (Osakidetzaren <i>Nire tratamendua</i> aplikazioa).
	Gaixotasuna ondo kontrolatzearen garrantzia azaltzea, eta kontrolik ezak epe luzera dituen ondorioak ere bai (ahozko eta idatzizko informazioa→, gaixotasun bakoitzari buruzko triptiko bat diseinatzea).
	Medikamentuak hartzeko ordutegia haien bizi-erritmora egokitzea.
Urduri edo triste dagoenean ez ditu inhalagailuak erabiltzen	Medikazioa erregularatasunez hartzeko beharra eta ez hartzearen arriskua azaltzea (farmaziarako gidoi bat diseinatzea).
	Urduritasuna terapiaren kontrako efektu baten ondorio izan badaiteke, LMko medikuarengana bideratzea.

2.– Atxikimendurik eza, nahita/nahi gabe (6-10 galderak):

Albo-ondorioen beldur da	Onura/arriskuaren balantzeari buruzko informazioa ematea; medikazioa erregularatasunez hartzeko beharra eta ez hartzearen arriskua, ondorio kaltegarriak izateko probabilitate txikia... (farmaziarako gidoi bat diseinatzea).
	Albo-ondorioak izanez gero nola jokatu behar den azaltzea (triptiko bat diseinatu).
	Konpondu gabeko kausaren bat badago, LMko medikuarengana bideratzea.
Uste du inhalagailuak ez direla oso lagungarriak gaixotasuna tratatzeko	Azaltzea zertan datzan gaixotasuna eta nola eragiten duten medikamentuek (informazioa eman ahoz eta idatziz→, diseinatu triptiko bat gaixotasun bakoitzeko).
Agindutakoak baino inhalazio gutxiago hartzen ditu	Azaltzea zertan datzan gaixotasuna eta nola eragiten duten medikamentuek (informazioa eman ahoz eta idatziz→, diseinatu triptiko bat gaixotasun bakoitzeko).
Hartzeari uzten dio, lan-bizitza oztopatzen dutela uste duelako	Onura/arriskuaren balantzeari buruzko informazioa ematea; medikazioa erregularatasunez hartzeko beharra eta ez hartzearen arriskua, ondorio kaltegarriak izateko probabilitate txikia... (farmaziarako gidoi bat diseinatzea).
	Gaixotasuna ondo kontrolatzearen garrantzia azaltzea, eta kontrolik ezak epe luzera dituen ondorioak ere bai (ahozko eta idatzizko informazioa, gaixotasun bakoitzari buruzko triptiko bat diseinatzea).
	Medikamentuak hartzeko ordutegia haien bizi-erritmora egokitzea.
	LMko medikuarengana bideratzea, medikamentuaren erregimen posologikoa pazientearen egoerara egokitzeko.

2025eko martxoaren 11, asteartea

Inhalagailuak erabiltzeari uzten dio, ezin dituelako ordaindu	Preskribatutako tratamendu medikoekiko atxikimendua errazteko laguntzei buruzko informazioa emango zaio.
	Beharrezkoa izanez gero, gizarte-zerbitzuetara bideratzea.
Ez du gaixotasuna ezagutzen edo ulertzen	Azaltzea zertan datzan gaixotasuna eta nola eragiten duten medikamentuek (informazioa eman ahoz eta idatziz→, diseinatu triptiko bat gaixotasun bakoitzeko).
Tratamenduaren konplexuegia da	Hartzeko orduak gogorarazteko alarmak ezartzea (Osakidetzaren <i>Nire tratamendua</i> aplikazioa).
	Medikazioa hartzea eguneroko jardura bati lotzea.
	Medikamentuak hartzeko ordutegia haien bizi-erritmora egokitzea.
	LMko medikuarekin harremanetan jartzea, tratamenduaren sinplifikazioa baloratzeko.
	Kutxaren etiketak manipulatzeko: piktogramak, posologia apuntatzea, etab.

3.–Atxikimendurik eza, nahi gabekoa (11 eta 12 galderak):

Pazienteak ez du jarraibidea ezagutzen	Inprimatu tratamendu aktiboaren orria eta gogorazi zein den ezarritako jarraibidea.
	Kutxaren etiketak manipulatzeko: piktogramak, posologia apuntatzea, etab.
Inhalazio-teknika ez da zuzena	Inhalagailuaren erabilera egokian heztea (inhalagailuen azterketa, plazeboak, euskarri digitalak, etab., erabiliz).
	Gailuaren erabilerari buruzko informazio-orria ematea (triptiko bat forma farmazeutiko bakoitzeko diseinatzea).

3. ERANSKINA

INHALAGAILUEN KONTROL-ZERRENDAA

Pazientearekin batera, erabiltzen duen inhalagailu bakoitzaren urratsak egiaztatzea.

Irakastea eta egiten dituen akatsak zuzentzea.

Antzematea akats kritikoak egiten dituen eta inhalagailua aldatu behar duen, pazientearen ezaugarri pertsonalengatik gaindiezinak direlako.

Akats kritikoen adibideak:

– Inhalagailua erabili aurreko arnasbotatzea egiteko gai ez izatea.

– Arnas hartze sakon eta indartsua egiteko gai ez izatea, edo hori zuzen egiteko arnasa hartzeko behar besteko gaitasunik ez izatea (hauts lehorreko inhalagailuekin batez ere).

– Kartutxo presurizatuetan, ez izatea gai arnas hartzen den bitartean gailua sakatzeko.(arnas hartzeko maniobra hasi eta berehala sakatu behar da; geldo eta etengabe arnas hartu behar da).

Akats kritikoak egiten baditu, OZra bideratuko da, eta bideratze-orrian akatsa zer motatakoa den adieraziko da.

Era berean, azterketa egiteko hitzordua jarriko zaio pazienteari, 1 eta 4 hilabeteren buruan.

NDFAn plataformak atxikimendua ebaluatzeko atal bat du, eta bertan, inhalagailuen erabileraren kontrol-zerrenda bat eskaintzen zaio farmazialariari. Informazio hori BOT PLUSetik dator, NDFAn oinarri duen CGCOFeko medikamentuen datu-basetik. Medikamentu bakoitzaren kontrol-zerrendak AEMPSk onartutako fitxa teknikoko informazioak zehazten ditu. Hori dela eta, gailu bakoitzera egokitzen da, eta medikamentu bakoitzaren espezifikoa da. Inhalagailu bat erabiltzeko urratsei buruzko berrietasunak baimentzen badira edo medikamentu berriak onartzen badira, informazioa automatikoki agertuko da NDFAn, automatikoki konektatuta baitago BOT PLUSen sartzen den informazioarekin.

Jarraian, gailuen adibide batzuk eta kasu bakoitzean NDFAn sartzen diren urratsen zerrenda jasotzen dira. Proposatutako hasierako dokumentuan jasotako 16 gailuez gain, gaur egun NDFAn agertzen direnen beste adibide batzuk ere badaude. Informazio hori etengabe aldatzen ari da, eta litekeena da informazioa aldatzea gailu berrien edo eguneratzeen arabera.

2025eko martxoaren 11, asteartea



1. Abrir el dispositivo cogiendo con una mano la carcasa externa y colocando el dedo pulgar de la otra mano en el hueco reservado para ello. Empujar con el dedo hasta donde se llegue.
2. Manteniendo el dispositivo con la boquilla hacia el paciente, deslizar la palanca hasta donde se llegue. Se percibirá un "click".
3. Manteniendo el inhalador Accuhaler lejos de la boca, expulsar todo el aire de los pulmones. No hacerlo dentro del dispositivo.
Programaren oinarria da berrikustea tratamendua, gaixotasunaren kontrola eta inhalazio-teknika betetzen direla. Farmazialari profesional batek egingo du berrikuspen hori, eta hura izango da zure medikazioak egokitzapenik/desegokitasunik duen eta horrek botikaren batekin lotutako arazoak eragin ahal dizkizun antzemateko arduraduna. Intzidentziarik antzemango balu, zure medikuari jakinaraziko dio, eta hark medikazioa egokituko dizu. Programaren helburua da asma edo BGBK duten pazienteen osasun-egoera hobetzea eta etorkizuneko konplikazioak prebenitzea; beraz, ez da espero osasunerako inolako arriskurik ekarriko duenik.

2.– ABANTAILA POSIBLEAK.

Programan parte hartzeak abantailak ekarri ahal dizkizu. Baliteke etorkizunean beste pertsona batzuek programa honetan lortutako informazioari probetxu ateratzea. Izan ere, informazio horri esker, osasun-profesionalek datu gehiago izango dituzte jakiteko zer-nolako garrantzia duen farmazialari batek pazienteen tratamenduarekiko atxikidura eta inhalagailuak erabiltzeko teknika berrikusteak eta behar duten pazienteei botikei buruzko informazio pertsonalizatua emateak.

3.– KOSTU POSIBLEAK ETA DIRU-ITZULTZEAK.

Zenbat kostatuko zait programa hau?

Programa honetan parte hartzeak ez dizu inolako kostu gehigarrikeragingo.

4.– KONFIDENTZIALTASUNA.

Zure datu pertsonalak kodetuta egongo dira (anonimotasuna mantenduko dugu), eta konfidentzialtasun osoz tratatuko dira programaren barruan.

Programak behar bezala funtziona dezan, beharrezkoa da zure datu pertsonalak (izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta harremanetarako telefonoa) eta osasun-datuak (hartzen dituzun botikak, gaixotasun kronikoak) «Pazientearen fitxa» deritzon fitxategi batean gordetzea. Fitxategi horren helburua da programa hau aurrera eramatea, eta baimen informatua jaso duen farmazia izango da fitxategiaren arduradun. Farmaziak beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzazkoak ditu, tratatzen dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Datu horiek ez dira beste ezertarako erabiliko ez baduzu horretarako berariazko baimena ematen, eta eskubidea izango duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako. Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

5.– BERMEAK.

Programa honetan parte hartzea onartzen baduzu, honako hau bermatuko dizugu:

– Borondatez parte hartzen duzu, eta edozein unetan utz dezakezu programa, eta horrek ez du etorkizunean jasoko duzun osasun-arretan inola eragingo. Programa uztea erabakitzen baduzu, farmazialari jakinarazi behar diozu, esku-hartzea modu ordenatuan amai dezan.

– Programak iraun bitartean, farmazialariari zein programan parte hartzen duten Osakidetzako profesionalei nahi duzuna galde diezaiekezu, edozein unetan.

– Baimen informatuari edo programan parte hartzen duen subjektu gisa dituzun eskubideei buruzko zalantzarik baduzu, zure farmazialariari edo programan parte hartzen duten Osakidetzako profesionalei galdetu.

1. GEHIGARRIA

FARMAZIA-BULEGOAREN IDATZIZKO BAIMEN INFORMATUAREN INPRIMAKIA

Izenburua: FARMAZIA-BULEGOEN BITARTEZ ASMARAKO EDO BGBK-RAKO INHALAGAILUEKIKO ATXIKIMENDUA HOBETZEKO ETA HORIEN ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO PROGRAMA

Nik,.....(e)k (subjektuaren izena), eman didaten informazio-orria irakurri dut.

Programari buruzko galderak egin ditzaket.

Programari buruzko informazio nahikoa jaso dut.

..... (r)ekin (baimen informatua azaldu didan farmazialariaren izena) hitz egin dut.

Ulertzen dut nire parte-hartzea borondatezkoa dela.

Ulertzen dut nire baimena atzera bota eta nire parte-hartzea eten ditzakedala:

1. Edozein unetan.
2. Arrazoirik eman gabe.
3. Nire etorkizuneko tratamenduari kalterik eragin gabe.

Honen bidez, askatasunez baimena ematen dut programa honetan parte hartzeko,

Subjektuaren izena:	Data: ¹	Subjektuaren sinadura:
Baimen informatua azaldu duen farmazialariaren izena:	Data: ¹	Baimen informatua azaldu duen farmazialariaren sinadura:
¹ Baimena sinatzen duen pertsona orok zer egunetan sinatzen duen adierazi behar du.		

Jakinarazten da datu horiek farmazia-prestazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko errezeta elektronikoaren fitxategian sartuko direla. Farmazia Zuzendaritza da fitxategi horren organo arduraduna, honako araudi hau betez: – Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>) – 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf) Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzan (Donostia hiribidea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Datuen babesari buruzko informazio gehiago (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-a3erezet/eu/>).

2. GEHIGARRIA

PAZIENTEAREN ZAKO INFORMAZIO-ORRIA

ZERGATIK ESKATU DIDATE PARTE HARTZEKO?

ASMA edo BGBK dudalako eta gaixotasuna tratatzeko inhalagailu bat agindu didatelako.

ZEIN DA AZTERKETA HONEN HELBURUA?

- Inhalagailuen bidezko tratamendua hobeto betetzea.
- Inhalagailuak kudeatzen laguntzea, arnasteko teknika hobe dezazun.

ZER ONURA LORTZEN DITUT?

Frogatu da inhalagailuen erabilera hobeto betetzeak eta erabiltzeko teknika hobeak izateak **asma edo BGBK duten pazienteen osasun-egoera hobetzen duela eta etorkizuneko konplikazioak prebeni ditzakeela.**

BERMEAK

- Zure parte-hartzea **BORONDATEZKOA** da eta edozein unetan utzi ahal izango duzu programa.
- Nahi duzuna galdetu ahal izango duzu.
- Zure datu pertsonalak konfidentzialtasun osoz tratatzen ditugu.

ZENBAT IRAUTEN DU PROGRAMAK?

- Lehen bisita baterako deituko dizugu.
- Beharrezkoa bada, 2 eta 4 hilabetera beste bi bisita egiteko hitzordua emango dizugu.

ZEIN ERANTZUKIZUN DITUT?

Farmaziara joatea eta zure farmazialariak egingo dizkizun galdetegi batzuei erantzutea.

PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

- Farmazialariak zure tratamenduaren betetze-maila eta inhalagailuen kudeaketa-teknika ebaluatzean oinarritzen da programa.
- Farmazialariak medikazioa egokitzeko proposamenik badu, harremanetan jarriko da zure medikuarekin edo erizainarekin.
- Ez duzu bestelako diagnosi-probarik egin beharko.

NORK FINANTZATZEN DU PROGRAMA HAU?

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzak.

2025eko martxoaren 11, asteartea

3. GEHIGARRIA

PAZIENTEARI NODOFARMA ASISTENCIALEN ALTA EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK

Data: ____ (e)ko _____ ren ____ (a)

Izen-deiturak: _____; NAN zenbakia:

_____.

 Bere izenean.

Honek ordezkatuta: _____ (ordezkariaren izen-deiturak), adinez nagusia («Ordezkaria»); NAN zenbakia: [____]; helbidea [____]; telefonoa [____]; helbide elektronikoa [____]. Ordezkariak pazientearen legezko ordezkari gisa hartzen du esku, notarioaren aurrean emandako ahalorde-eskritturaren, ebazpen judizialaren edo Zuzenbidean baimendutako beste edozein bitartekoren bidez legitimatuta, eta adierazten du legitimatuta dagoela pazientearen izenean baimen hau emateko, bermatuz emandako informazioa egiazkoa eta erreal dela eta erabilera-baldintza hauek sinatzen diren egunean eguneratuta daudela.

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak eskubidea izango du ordezkariaren legitimazioari buruz egoki iritzi bezain beste egiaztapen egiteko eta haren legezko ordezkari gisa egiaztatzen duen dokumentazioa edozein unetan eskatzeko.

ADIERAZTEN du irakurri eta ulertu dituela FARMAZIA-ZERBITZU PROFESIONAL ASISTENTZIALAK ERABILTZeko BALDINTZAK «NODOFARMA ASISTENCIAL» PLATAFORMAREN BIDEZ (aurrerantzean, «ERABILERA-BALDINTZAK»), jarraian jasotzen direnak eta esteka honetan kontsulta daitezkeenak

ONARTZEN DU:

1) Nodofarma Asistencial plataforman alta ematea, eta baimena ematea farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak ematek ateratako datuak bertan erregistratzeko paziente gisa sarbidea eman zaien farmazia-bulegoei. Halaber, bere datuak erabiltzeko eta eskuratzeko ahalmena ematea Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiari ere, zerbitzuak, osasun komunitarioa eta sendagaien zentzuzko erabilera hobetze aldera. Hobekuntza hori jasotako datuen analisi eta azterketa bidez egingo da, eta aipatu kontseilu nagusiak egingo du, «ERABILERA BALDINTZEN» arabera beharrezko jarduketak eginez eta horiek egiten saiatzen.

2) Farmazia-bulegoa _____n dagoen _____ titulartasunerako gaitzea, pazientearen datuak plataforman erregistratu, erabili eta edozein momentutan eskuratzeko, «ERABILTZeko BALDINTZETAN» deskribatutako farmazia-zerbitzu profesionalak modu pertsonalizatuan emateko.

Data: ____ (e)ko _____ ren ____ (a)

Sinadura: _____

2025eko martxoaren 11, asteartea

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	<p>Sartzeko baimena ematen duten farmazia-bulegoak (zuzenean haiek ematen dituzten farmazia-zerbitzu profesional asistentzialei buruzko datuei dagokienez).</p> <p>Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia (pazienteak sarbidea ahalbidetu dion edozein farmazia-bulegok farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak sarean emateko plataforma mantentzeari eta zerbitzu horiek hobetzeko agregatutako analisiei, osasun komunitarioa hobetzeari eta sendagaiak zentzuz erabiltzeari buruz).</p>
Helburua	Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak ematea pazienteak sarbidea eta pazienteen kontrola ahalbidetzen duen edozein farmazia-bulegok, eta zerbitzu horiek eta osasun komunitarioa hobetzeko eta sendagaiak zentzuz erabiltzeko zerbitzua ematek eratorritako datuak ikertzea eta aztertzea.
Legitimazioa	Baimena
Hartzaileak	Nodofarma Asistenciali atxikitako farmazia-bulegoak, pazienteak sartzeko ahalmena ematen dienak, eta Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia.
Eskubideak	Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, haien aurka egitea, datuen tratamendua eta eramangarritasuna mugatzea, baimena kentzea eta kontrol-agintarien aurrean erreklamatzeko aukera.
Informazio gehigarria	Informazio gehigarria eta xehea kontsulta dezakezu pazientearen altaren baldintzei dagokien datuen babesari buruzko atalean.

Ez dut plataformaren berrikuntzei buruzko jakinarazpenik jaso nahi (atxikitako farmazia-bulego berriak, funtzionalitate berriak, etab.).

2025eko martxoaren 11, asteartea

PAZIENTEEK FARMAZIA-ZERBITZU PROFESIONAL ASISTENZIALAK NODOFARMA ASISTENCIAL PLATAFORMAREN BIDEZ ERABILTZEKO BALDINTZAK

Nodofarma Asistencial plataforman (aurrerantzean, «Nodofarma Asistencial» edo «Plataforma») paziente gisa alta emateko (aurrerantzean, «Paziente»), irakurri arretaz erabilera-baldintza hauek (aurrerantzean, «Baldintzak») eta, ados bazaude, sinatu amaieran agertzen den baimen-formularioa.

NODOFARMA ASISTENCIAL PLATAFORMA

Plataformaren titulartasuna.

NODOFARMA ASISTENCIAL Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren online plataforma bat da (Villanueva kalea 11, 7, 28001 Madril, IFZ: Q-2866018, 91 431 25 60, congral@redfarma.org), eta asistencial.nodofarma.es URL helbidean dago

eta farmazia-bulego guztien eskura jartzen da (aurrerantzean, «farmazia-bulegoak»), bertan borondatez alta eman duten farmazialari interesdunek (aurrerantzean, «atxikitako farmazialariak») kalitate goreneko farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko tresnak izan ditzaten.

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak plataforma mantentzeko eta kudeatzeko zerbitzuak ematen ditu, eta horrek paziente gisa duzun profila hartzen du barnean, erabat doan baldintzak onartzen dituzten pazienteentzat. Aurrekoa ulertu behar da farmazia-bulegoek farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateagatik kontraprestazioak edo horien esparruko jarduera zehatzak aplikatzeko duten eskubidea ezertan galarazi gabe, farmazia bakoitzak pazienteekin edo beste erakunde finantzatzaile eta/edo aseguratzaile batzuekin modu librean adostu dezakeen moduan.

NODOFARMA ASISTENCIAL plataformaren deskribapena.

Plataforma lagungarria izango da pazienteei farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak kudeatzeko, eta horien informazioa erregistratuko dute plataformari atxikitako farmazialariak; horrela, pazienteekiko kontaktua etengabea izango da eta jarraipen farmazeutiko pertsonalizatua emango zaie pazienteei, horien farmakoterapia hobetzeko.

Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak dira farmazialari batek farmazia-bulegotik eskaintzen duen jarduera sanitario oro, baldin eta farmazialari horrek bere gaitasun profesionalak erabiltzen baditu gaixotasuna prebenitzeko eta sendagaien eta produktu sanitarioen hartzaileen eta, oro har, herritarren osasuna hobetzeko, tratamenduen emaitzen erabilera optimizatuz.

Plataformaren bidez erabil daitezkeen farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen artean, honako hauek daude:

a) Arreta farmazeutikoaren zerbitzuak. – Farmazia-zerbitzu profesional asistentziala, farmazialariaren praktika profesionalaren barruan, non farmazialari atxiki batek bere gain hartzen baititu sendagaiekin lotura duten pazientearen premiak. Farmazialariak pazientearen bizi-kalitatea hobetzen aktiboki parte hartzea da, medikuarekin eta beste profesional sanitario batzuekin lankidetzan, pazientearen bizi-kalitatea hobetzen duten emaitzak lortzeko, bai eta osasun ona ematen duten eta gaixotasunak prebenitzen dituzten jardueretan esku hartzea ere

b) Osasun komunitarioko zerbitzuak. – Farmazia-bulegotik egindako farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak, non atxikitako farmazialari batek farmazialari gisa dituen gaitasun profesionalak erabiltzen baititu osasunaren hezkuntzan, sustapenean eta babesean, bai eta gaixotasunaren prebentzioan ere, eta, kasu bakoitzean, osasun publikoko programak eta/edo baliabide egokiak erabiltzen baititu, inplikaturako eragile guztiekin lankidetzan.

c) Sendagaiak eta produktu sanitarioak banatzeko zerbitzua. – Banakako ebaluazioa egin ondoren, hartzailerek sendagaiak eta produktu sanitarioak jasotzen dituztela eta beren premia klinikoetara egokituta erabiltzen dituztela bermatzera zuzentzen da, bakoitzaren eskakizunen arabera behar duten dosietan, behar bezala erabiltzeko beharrezko informazioarekin, dagokion denbora-tartean.

d) Indikazio farmazeutikoko zerbitzua. – Farmazialari atxiki batek osasun-arazo jakin baten kontsultaren aurrean emandako farmazia-zerbitzu profesional asistentziala, farmazia-bulegora iristen den paziente edo zaintzaile batek beretzat erremediorik egokiena eskatzeagatik emana. Esaldi honekin sinbolizatzen da: «Zer emango didazu daukadan honentzat?» Zerbitzua ematen ari den profesionalak sendagai edo produktu sanitarioen bat eman beharko balu, banaketa-zerbitzuaren prozeduraren arabera egingo luke.

e) Jarraipen farmakoterapeutikoaren zerbitzua. – Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen helburua da farmazialari atxikiek detektatzea sendagaiekin lotutako arazoak, sendagaiei lotutako emaitza negatiboak prebenitzeko eta ebazteko. Zerbitzu honek konpromiso bat eskatzen du, zeina modu jarraituan, sistematizatuan eta dokumentatuan hornitu behar baita, pazientearekin berarekin eta osasun-sistemako gainerako profesionalekin lankidetzan, pazientearen bizi-kalitatea hobetuko duten emaitza jakinak lortzeko helburuarekin.

f) Medikazioa bateratzeko zerbitzua. – Farmazia-zerbitzu profesional asistentziala, non farmazialari atxiki batek pazienteak erabiltzen dituen medikamentuen zerrenda sistematikoki eta modu protokolizatuan alderatzen baitu asistentzia-mailen arteko trantsizioa egin aurretik eta ondoren. Helburua da tratamendu farmakologiko berria behar duela eta eraginkorra eta segurua dela ziurtatzea, eta horretarako behar diren esku hartzeak egingo ditu, inplikaturako profesional sanitarioekin koordinatuta. Zerbitzu honen jarduketa nagusia farmazialariak desberdintasun posibleak identifikatzean datza, gero aztertu, ebaluatu eta, hala badagokio, ebazteko.

g) Atxikimendu terapeutikoaren zerbitzua. – Farmazia-zerbitzu profesional asistentzial honetan, farmazialari atxikia, esku-hartuz, aktiboki aritzen da elkarlanean pazientearekin, hark, borondatez, agente sanitarioaren gomendioak bete ditzan sendagaiak eta produktu sanitarioak erabiltzeko prozesu egokiari, ohitura higieniko-dietetikoei eta/edo bizimoduari dagokienez, pazientearen osasunean espero diren emaitzak lortzeko.

PAZIENTEAREN ALTA ETA BAJA

Pazientearen alta.

Pazienteak Nodofarma Asistencialen alta emateko eskatu ahal izango du plataformari atxikitako farmazia-bulego batean edo batzuetan, horietako bakoitzean eranskin gisa txertatutako formularioa betez eta baldintzak onartuz.

Lehen alta eman ondoren, Nodofarma Asistencialen pazientearen profil bat sortuko da, eta «Mi Farmacia Asistencial» txartela edo identifikatzailea emango zaio. Bertan, kode bat agertuko da, irakurri ahal izateko, eta, horrekin batera, pazienteak baimendutako farmaziak profilerara sartzeko aukera. Farmazia horiek profil horretan oharrak egin eta partekatu ahal izango dituzte, pazientearen jarraipena eta arreta farmazeutikoa pertsonalizatzeko eta hobetze aldera, farmakoterapiaren emaitza eta pazientearen bizi-kalitatea hobetzeko.

Hala ere, horretara bideratutako profilaren eremuetan, farmazialari atxikiek ohar edo balorazio subjektiboak erregistratu ahal izango dituzte, baina ez dira beste farmazialari atxiki batzuekin partekatuko, isilpean gordeko dira.

Pazienteak bi sarbide mota eman ahal izango dizkie farmazia-bulegoei:

a) Sarbide jarraitua: Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko sarbide mota hori

ematen duzunean, baimendutako farmazia-bulegoak zure paziente-profilera inolako mugarik gabe sartu eta kudeatu ahal izango du, harik eta, zuk, paziente gisa, baimen hori baldintzetan ezarritako harremanetarako edozein baliabideren bidez baliogabetzen duzun arte. Farmazia-bulego bat zure profilera modu horretan sartu ahal izateko, paziente gisa, dagokion dokumentua sinatu beharko duzu, eta dokumentu hori zuk nahi duzun farmazia-bulego atxikian eskatu ahal izango duzu. Farmazia-bulego bati sarbide jarraitua egiteko baimena emateak ez die eragingo aurrez emandako baimenei.

b) Sarbide puntuala: Paziente gisa, farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko sarbide mota hori ematen duzunean, baimendutako farmazia-bulegoak zure paziente-profilera sartu eta kudeatu ahal izango du, modu puntualean eta aldi baterako mugatuta, gehienez ere 12 orduz. Sarbide puntual hori izateko, farmazialari atxikiak «Mi Farmacia Asistencial» txartela edo identifikatzailea eskatu beharko dizu, bai eta plataformak eskatuko dizun segurtasun-informazioa ere.

Deskribatutako baldintzetan atxikitako farmazialariez gain, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak ere sartu ahal izango du pazientearen profilera, plataforma kudeatzeaz eta mantentzeaz arduratzen den aldetik, bai eta edukia farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko informazio interesgarriarekin osatzeaz ere, pazienteek plataforman dituzten datuen analisi agregatuan oinarrituta.

Pazientearen baja.

Pazienteak edozein unetan eskatu ahal izango du baja plataforman, baldintzetan ezarritako harremanetarako edozein bitartekoren bidez, hau da, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren harremanetarako helbideen bidez edo plataformari atxikitako farmazia-bulego batean jakinarazita

Era berean, ez badira baldintzak betetzen, pazienteak baja hartu ahal izango du plataforman.

Nodofarma Asistencialen baja emanez gero, ezingo dira zerbitzuak baldintzetan ezarrita dauden moduan eman.

PAZIENTEAREN BETEBEHARRAK

Pazienteak adierazten du adinez nagusia dela eta nahikoa gaitasun duela baldintza hauek sinatzeko (adingabeko batek edo legezko ordezkari baten mende dagoen adin nagusiko batek erregistroa egin behar badu, haren legezko ordezkariak egin beharko dute, eta Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak horri buruz egoki irizitako egiaztapen guztiak egiteko eskubidea izango du).

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia ez da, inola ere, honako hauen erantzule izango:

– Pazientea baldintza hauek sinatzeko gai dela egiaztatzeaz, pazientearen legezko ordezkariaren legitimazioa egiaztatzeraz mugatu gabe baina barne hartuz, hala badagokio;

– Baldintza hauetan emandako informazioa egiazkoa dela eta eguneratuta dagoela egiaztatzeaz, pazienteen legezko ordezkariak emandako informaziora mugatu gabe baina barne hartuz, hala badagokio;

– Pazienteak plataforman bere izenean sartzeko baimena ematen dien pertsonak pazientearen aldetik behar bezala baimenduta daudela egiaztatzeaz; ez eta

– Plataformaren erabilerari lotutako hirugarrenen jardueraz, farmazialari atxikiak eta pazienteak baimendutako hirugarrenak barne hartuta baina mugatu gabe, legezko eta/edo kontratuko betebeharrei dagokienez (besteak beste, sendagaiak ematearen arloko betebeharrak, eskubide eta debekuak).

Pazienteak bermatzen du plataforman alta emateko unean eta farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak ematen diren bitartean emandako datuak egiazkoak direla eta behar bezala eguneratuta daudela, eta datu horien egiazkotasunik eta/edo eguneratze ezak eragin ditzakeen ondorio, akats eta hutsegiteen erantzule bakarra bera dela.

«Mi Farmacia Asistencial» txartela edo identifikatzailea pertsonala eta besterenezina da, eta pazienteak edo pazienteak bere izenean hura erabiltzeko baimena eman dien pertsonak soilik erabili ahal izango dute. Pazienteak konpromisoa hartzen du txartela edo identifikatzailea eta segurtasun-gakoak arduraz erabiltzeko, eta modu konfidentzian gordeko ditu, bere zaintzapean. Pazientea izango da txartelaren edo identifikatzailearen edozein erabileraren erantzulea, salbu eta legez kontrako erabilera egiaztatzen badu eta modu arduratsuan jokatu badu, egitateak Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiari jakinarazita.

Halaber, pazienteak adierazi du badakiela Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia ez dela atxikitako farmazia-bulegoetatik plataformaren bidez farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak ematen dituen farmazialari atxikiek jasotzen dituzten datuen erantzule, eta haiek direla haren edukirik izan ditzakeen ondorioen erantzule bakarrak.

Pazienteak, plataforma erabiltzeko bere legezko ordezkarien eta/edo bere izenean baimendutako ordezkarien aurrean dituen ekintzak ezertan galarazi gabe, onartu egiten du Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia erantzukizunetik salbuestea «PAZIENTEAREN BETEBEHARRAK» klausulan jasotakoa ez betetzeagatik.

DATU PERTSONALEN BABESA

Tratamenduen dualtasuna eta erantzuleak.

Pazienteak Nodofarma Asistencialen alta emateko ematen dituen datu pertsonalak edo ondoren plataforman erregistra eta/edo sor daitezkeenak haren bidez ematen diren farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen esparruan, osasunari, farmakoterapeutikari eta/edo epidemiologiari buruzko datuak barne, pazienteak baimentzen dituen farmazia-bulegoek eta Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak, hots, tratamendu horien arduradunek, tratamendu bana egingo dute.

Pazienteak baimendutako farmazia-bulegoak datuen tratamenduaren erantzule izango dira farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko, eta, tratamendu horretan, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan arituko dira, arduraduna den aldetik. Horretarako, haien eskura jarriko du plataforma, zerbitzu horiek emateko, eta mantendu eta kudeatu egingo du.

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia, plataformaren titularra den aldetik, tratamenduaren arduraduna izango da bere paziente-profilaren azpiegitura sortu eta mantentzeko, pazienteak baldintzen arabera baimentzen duen edozein farmazia-bulegori farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak sarean eman ahal izateko, bai eta bertan jasotako eta erregistratutako datuetatik abiatuta analisi- eta ikerketa-jarduerak egiteko ere, farmazia-bulegoekin lankidetzan, tratamendu horren arduradunak diren aldetik, datuen bilketa eta erregistro horren bidez.

Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta legitimazioa.

Hala, eta aurreko klausulan deskribatutakoaren arabera, pazienteen datu pertsonalen tratamenduak honako helburu hauek lortzeko egingo dira:

a) Pazientearen alta plataforman kudeatzea, eta pazientearen profila sortu eta mantentzea, pazienteak farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak emateko baimendutako farmazia-bulegoetara errazago iristeko, eta lortutako informazioa aztertzea, pazienteak modu librean emandako baimena oinarri hartuta. Plataforman edozein unetan eman ahal izango da baja, baina horrek ez du eraginik izango aurretik egindako tratamenduen zilegitasunean.

b) Farmazialari atxikiek plataformak ahalbidetzen dituen funtzionaltasunen erabilera egokia egiten dutela kontrolatzea, pazienteei edozein modutan kalte egin diezaieketen erabilera desegokiak edo okerrak saihestuz, eta farmazialari atxikiei tresna modu egokian nola erabili aholkatzea. Hori guztia, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak modu egokian ematen direla ebaluatzen eta bermatzeko duen interes legitimoan oinarrituta.

c) Nodofarma Asistencialen farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak ematearen esparruan erregistratutako datu pertsonalak eta/edo Nodofarmaren erabilerari buruzkoak bereiztea eta/edo horientzat pseudonimoak asmatzea, farmazialarien jardura profesionalaren eta medikamentuen erabilera arrazionalaren arloan (estatistikoak, epidemiologikoak edo farmakoekonomikoak, besteak beste) mota guztietako ikerlanak egin ahal izateko, bai eta ikerketa horren ondoriozko datu eta/edo emaitza agregatuak argitaratzea eta plataformaren edukia eta funtzionalitateak osatzeko erabiltzea ere. Hori guztia baldin eta osasun-arloan ikerketa zientifikoa egiteko datu pertsonal pseudonimizatuak erabiltzeko aukera badago, eta, hala badagokio, baldin eta osasun publikoa sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko lankidetzan aritzeko eta farmazia-arretarako eta sendagaiak eta osasun-produktuak zentzuz erabiltzeko osasun-politika formulatzen laguntzeko interes publikoa badago.

d) Alta emanda dauden pazienteei plataforman izandako berrikuntzen berri ematea (adibidez, atxikitako farmazia-bulego berriak, funtzionalitate berriak, etab.), datuen titularrak emandako edozein bitartekoren bidez. Nodofarma Asistenciali buruzko berriak bidaltzeko interes legitimoa du Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak, pazienteak informatuta eduki nahi baititu zerbitzuen egoerari buruz, baina pazienteen baimena beharko da publizitate-izaerako komunikazioak bidaltzeko.

Oro har, borondatezkoa izaten da eskatutako datu pertsonalak eskura jartzea, berariaz kontrakoa adierazten dutenak izan ezik. Beraz, nahitaezko datuak emateari uko eginez gero, ezinezkoa izango da alta ematea eta/edo eragindako zerbitzu jakin horiek jasotzea.

Datuen komunikazioak.

Pazientearen datuak hark erabakitzen dituen farmazia-bulegoei jakinaraziko zaizkie, baldintzetan adierazitako prozeduraren bidez, farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak plataformatik eman ahal izan ditzaten. Sarrera puntuala edo jarraitua izango da, pazienteak emandako baimenen arabera.

Baldintzetan ezarritako harremanetarako edozein baliabideren bidez baliogabetu ahal izango ditu pazienteak sarbide jarraitua egiteko emandako baimenak.

Era berean, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak datu pertsonalak eskuratzeko haietara sartu behar duten zerbitzu-emaileei sarbidea eman ahalko die, bai eta Farmazialarien Elkargo Ofizialei (FEO) edo pazienteak farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak jasotzen dituen farmazia-bulegoei atxikitako FEO kontseilu autonomikoei ere, betiere horiek konpromisoa hartzen badute tratamenduaren arduradun gisa dituzten betebeharrak betetzeko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

1.1 klausularen arabera hirugarren erakunde batek finantzatzen dituen farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen kasuan, pazienteak baimena ematen du erakunde horri datuak jakinarazteko, baldin eta beharrezkoak badira hirugarrenek ordaintzeko, dirua itzultzeko eta/edo finantzatzeko, hala nola aseguratzaileek, erakunde publikoek edo beste finantzatzaile batzuek, eta kasu bakoitzerako ezartzen diren baldintzetan.

Datuak gordetzeko epea.

Aipatutako helburuekin bat etorritik, datuak pazienteak Nodofarma Asistencialen alta emanda dagoen bitartean tratatuko dira, eta, ondoren ere, behar bezala blokeatuta gorde ahal izango dira, zerbitzuak ematearen ondorioz sortu ahal izan diren legezko erantzukizunak preskribatu arte. Une horretan behin betiko ezabatuko dira.

Pazientearen eskubideak.

Pazienteak edozein unetan baliatu ahal izango ditu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeke, datuen aurka egiteko eta haien eramangarritasuna mugatzeko eskubideak, bai eta bere datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubideak ere. Horretarako, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiari zuzendu beharko zaio, 1.1 klausulan emandako helbide elektronikoen bidez (edo Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiko datuen babesaren ordezkariari, dpoprotecciondatos@redfarma.org helbide elektronikora idatzita), edo, bestela, alta emanda dagoen edozein farmazia-bulegori, aurrez aurre edo idatziz, posta-helbidera edo/eta helbide elektronikora idatzita.

Gainera, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.aepd.es) zure eskubideak urratu dituztela uste baduzu.

MISZELANEA

Baldintzak interpretatzea.

Baldintza hauen klausula edo apartatu guztiak modu independente eta autonomoan interpretatu behar dira, eta gainerako estipulazioei ez die eragingo horietako bat epai judizial batek edo arbitraje-ebazpen irmo batek baliogabetzat edo aplikaezintzat jo izanak. Ukitutako klausularen edo klausularen ordezkari, erabilera-baldintzek lortu nahi dituzten ondorioak babesten dituzten beste klausula bat edo batzuk jarriko dira.

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak baldintza hauetan jasotako eskubide edo xedapenen bat baliatu edo gauzatu ez badu, horrek ez du esan nahi horri uko egiten dionik, ez badu idazki bidez esanbidez onartu eta erabakitzen.

1.1.–Jurisdikzioa eta lege aplikagarria.

Baldintza hauekin edo Nodofarmaren zerbitzuekin lotutako edozein eztabaida, interpretazio-gatazka edo arazo Espainiako legeriaren arabera ebatziko da, eta alderdiak pazientearen egoitzako epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira.

Nodofarma erabiltzeari buruzko erreklamazioak aurkezteko, pazienteak baldintza hauetan adierazten diren helbide elektronikora nahiz fisikora idatz dezake.

2025eko martxoaren 11, asteartea

12. ERANSKINA

ATXIKITZEKO ARDURAK ONARTZEA

Farmazialari titularra: / Farmacéutico-a titular:

Izen-deiturak / Nombre y apellidos	Kolegiatuaren zk. / N° de colegiado-a
------------------------------------	---------------------------------------

Farmazia: / Farmacia:

Zk. / N°	Izena / Nombre	Lekua / Ubicación	Herria / Población

Farmazialari kreditatuak: / Farmacéuticos-as acreditados-as:

	Izen-deiturak / Nombre y apellidos
1	
2	
3	
4	

Interesa dut nire farmazian Euskal Autonomia Erkidegoko farmazietatik asma edo BGBK inhalagailuen atxikidura eta erabilera egokia hobetzeko programarekin bat egitea, eta Osakidetzak, Osasun Sailak eta.....Sendagaigileen Elkargo Ofizialak xede horretarako duten prozeduran ezarritakoa zorrotz bete.

Nire farmazia bulegoak dituen egitura eta tresneria aintzat hartuta, farmazia bulegoa prozeduran zehaztutako prozesu guztiak gauzatzeko egokia dela jotzen dut.

Orobat, nire farmazia bulegoan goian aipatutako farmazialari kolegiatuak ditut; denok programaren sistematikari buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa lantzeko ikastaroa egin dute, eta egiaztagiria jaso dute.

Osasun Sailari eskatzen diot nire eskaera kontuan har dezala, eta nire farmazia onar dezala Euskal Autonomia Erkidegoko farmazietatik asma edo EPOC inhalagailuen atxikidura eta erabilera egokia hobetzeko programa gauzatzeko.

Estoy interesado-a en adherirme al Programa de mejora de la adherencia y uso adecuado de inhaladores en asma o EPOC desde las farmacias comunitarias del País Vasco y seguir estrictamente lo establecido en el procedimiento que a tal fin tienen tiene Osakidetza, el Departamento de Salud y el Colegio Oficial de Farmacéuticos de

Considero que mi oficina de farmacia es apta por estructura y utillaje para realizar cada uno de los procesos descritos en este procedimiento.

Así mismo, mi oficina de farmacia cuenta con los farmacéuticos-as colegiados-as arriba citados, que han realizado el curso de formación teórico-práctico sobre la sistemática del programa y han sido acreditados.

Solicito al Departamento de Salud que considere mi solicitud y acepte la inclusión de mi farmacia para realizar el «Programa de mejora de la adherencia y uso adecuado de inhaladores en asma o EPOC desde las farmacias comunitarias del País Vasco».

.....

.....

Farmazialari titularra / Farmacéutico-a titular

BIBLIOGRAFIA

- 1.–World Health Organization. Adherence to long-term therapies: evidence for action. Geneva: Osasunaren Mundu Erakundea; 2003.
- 2.– Iuga AO, McGuire MJ. Adherence and health care costs. Risk Manag Health Policy 2014;7:35-44.
- 3.– Osakidetzako informazio-sistematik ateratako datuak; 2022.
- 4.– Soziologia eta Komunikazio Kabinetea. Encuesta sobre adherencia terapéutica en España. Espainia 2016.